



ZIGOR ARLOKO JURISDIKZIOARI BURUZKO ONLINE IKASTAROKO DEIALDIA

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak Zigor arloko Jurisdikzioari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean, lan-poltsetan daudenentzat bereziki zuzenduta.

Baldintzak:

1. Ikastaroan **lehentasuna izango dute** Justiziako Administrazioako Kudeaketa, Izapideketa Judizialeko kidegoetako lan-poltsan daudenek; zehazki, justizia administrazioan, azken bi urteetan 6 hilabeteko lan esperientziarik ez dutenek; eta aurreko lau urteetan ez dute ikastaroa osatu.

2. Automatrikula, hurrengo estekaren bitartez egingo da:

- [Zigor arloko Jurisdikzioa online izen ematea](#)

Modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.

3. **AUTOMATRIKULA:** Epea **maiatzaren 13ean** irekiko da eta **maiatzaren 27an** itxiko da **goizeko 09:00etan**.
4. Ekainaren 5an, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastaroan onartutako pertsonei, ikastaroan sartzeko jarraibideak emanez. **GARRANTZITSUA: Posta elektronikoko erretilu guztietan begiratzea gomendatzen da, Spam-ena barne**
5. 300 plaza eskaintzen dira. Hautatzeko, bitartekoen lan-poltsako hurrenkerak izango du lehentasuna.
6. **IKASTAROA:** **Ekainaren 5ean** hasiko da, **14:00etan**, eta **ekainaren 22an** amaituko da, **goizeko 09:00etan**. Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.
7. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
8. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroko test guztiak egin beharko ditu**.
9. **AZTERKETA (ONLINE):** **ekainaren 23an, 14:00etan**, irekiko da azterketa online egiteko epea, **eta ekainaren 30ean** itxiko da, **goizeko 09:00etan**.
10. Azterketaren epea amaituta, gainditu dutenek diploma jasoko dute "**Nire karpeta**" -Euskadiko **Sare Elektronikoa- atalean**. Gainera, lan-poltsako kideari deitu ahal izango zaio ordezkapenak egiteko.